



Adinberri: Berrikuntzarako Agenda Estrategiko Berria (BAE): Bizitza- luzeraren paradigma berria berritzen



Ira. 17 2024

Kod. 019-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 17 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Adinberri SIA udako ikastaroaren lehen edizioa da, EHUko Uda Ikastaroen esparruan. Adinberri-SIA tresnak, Adinberri Fundazioaren Behatokia eta Adimen Aurreratuko Sistemak, zahartzeari eta bizitza-luzerari buruz duen ezagutza eskura jartzea du helburu orokorra, zahartzearen inguruan eragileen ekosistemaren (tokiko, eskualdeko eta nazioarteko mailan) eta, oro har, herritarren artean.

Pertsona guztientzat irekia dagoen tresna hau, Fundazioaren Berrikuntzarako Agenda Estrategikoaren parte da -duela gutxi berrikusita eta elkar eraikita Adinberri ekosistemarekin batera- 2024-2027 aldirako. Gainera, beste tresna batzuekin batera, Berrikuntzako Agenda Estrategiko berri honek, berrikuntzatik erantzun nahi dituen erronka handiak gauzatzeko ibilgailua da. Lehenengo erronka desgaitasunik gabeko bizi-itzaropena handitzea da, erabateko ongizatea ahalbidetzeko eta zentzuzko bizi-proiektu oso bat garatzeko, prebentzioaren eta bizi-ohitura osasungarrien sustapenaren bidez. Erronka helburu hauetan zehazten da:

- Osasun integrala prebenitzea eta sustatzea. Ongizate integrala eta bizitza proiektu osoa eta zentzuduna garatzea ahalbidetuko duten ohitura eta bizimodu osasungarriak sentsibilizatzea eta bultzatzea.
- Adinekoen gaitasun funtzionala mantentzea eta sustatzea.
- Nahi ez diren bakardadeak prebenitzea eta aurre egitea.

Ikastaroaren lehen edizio honetan, Adinberriko **BAE**ren 3 helburu hauei helduko diegu, ikuspegi akademiko, dibulgatzaile, experimental, berritzaile eta parte-hartzailetik eta Gipuzkoako zahartzearen ekosistemaren erreferentziazko 4 eragilerekin lankidetzan:

Biogipuzkoa, Cita-Alzheimer, Aubixa Fundazioa eta Agijupens.

Helburuak

Adinberriren Berrikuntza Agenda Estrategikoa herritarrekin partekatzea, gizarte osasungarri baten zerbitzura.

Osasuna eta pertsonen gaitasun funtzionala eta harremanetarako gaitasuna sustatzearen inguruko ezagutza eta kontzientziazioa sustatzea.

Antolakuntza



Zuzendaritza



Ainhoa Becerra Sotelo

Adinberri Fundazioa, Dirección de proyectos y programas

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2024-09-17 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa